

Enpresa proiektu

Berritzaileen

“Juan Torres”

Lehiaketeta

“Juan Torres” Enpresa-proiektu
Berritzaileen Lehiaketaren 7. edizioa

ekín

1	HITZAURREA	3
2	NORENTZAT DA?	3
3	PROIEKTUAREN EDUKIA	3
4	PROIEKTUAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA	5
5	BETEKIZUNAK	5
6	SARIAK	6
6.1	LEHENENGO SARIA	6
6.2	BIGARREN SARIA	7
6.2.1	Sariak jasotzeko justifikazioak	7
6.2.2	Sariak eta zergak	8
7	EBALUAZIO BATZORDEA	8
8	BETEBEHARRAK	8
9	JABETZA INTELEKTUALA	9
10	EBAZPENA	9

1 HITZAURREA

Ermuko Udaleko Ekonomi Garapen, Enplegu eta Prestakuntza Alorrak **“Juan Torres” enpresa-proiektu berritzaileen lehiaketaren 7. edizioa** antolatu du.

2 NORENTZAT DA?

Pertsona eta enpresa ekintzaileentzat, beraien proiektua negozio-plangintza bihurtu eta Ermuan finkatu nahi badute. Teknologia izango da aurkeztutako enpresa-proiektuen osagai garrantzitsuenetakoa, eta negozioaren eginkizun nagusia ikerketa-lana.

3 PROIEKTUAREN EDUKIA

Proposamenek ondorengoak edukiko dituzte gutxienez:

- a) Proiektuaren izena.
- b) Talde suspertzaile/ekintzailearen aurkezpena.
- c) Enpresa-proiektuaren exekuzio-laburpena (2-3 orrialde gehienez), ondorengoak adieraziz:
 - Enpresaren jarduera eta helburuak (enpresak zer egingo duen labur-labur azaldu).
 - Ekoiztuko diren produktuak/zerbitzuak (eskainiko den produktua edo zerbitzua zertan den labur-labur azaldu).
 - Berori zuzenduko zaion merkatuaren azterketa (produktua edo zerbitzuaren merkatu nagusia zein den azaldu: lurraldea, hartzaileak eta abar).
 - Aurreikusitako finantza-beharrianak (finantza arloan enpresak izango dituen beharrianak labur-labur azaldu).
 - Zuzenean zein zeharka sor daitekeen lan kualifikatuaren aurreikuspena (lanpostu berriak sortzea aurreikusten bada, azaldu labur-labur).
 - Ermuko ekonomia eta enpresaren garapenari egingo dion ekarpena (egun Ermuan dagoen ekonomi ehunarentzat suposatzen duen berrikuntza azaldu).
 - Enpresa-ideiaren AMIA azterketa orokorra (ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak).
- d) Teknologi berrikuntzaren proiektuaren deskribapena, ondorengoak adieraziz:

- **Ingurune ekonomikoa eta merkatua**

1. Enpresaren eginkizuna gauzatuko den testuinguru ekonomiko eta sozialaren deskribapena (herrian, Estatuan, Europan, munduan eta abar).
2. Produktu edo zerbitzuaren abantailak, lehiakorra izateko.
3. Merkatuaren potentziala eta erakargarritasuna (azaldu norentzat den produktua/zerbitzua eta nola aurreikusten den merkatuak hartuko duela).
4. Lehiaren azterketa eta lehiakideekiko kokapena.

- **Produktuaren/zerbitzuaren deskribapena:**

1. Produktuaren/zerbitzuaren berrikuntza-maila (azaldu produktu eta/edo zerbitzuaren nondik norakoak).
2. Zein beharrez erantzuten dion.
3. Saltzeko aurreikusten diren bideak.
4. Produktua/zerbitzua suspertzeko eta berorren berri emateko plangintza.

- **Lan-plangintzaren definizioa**

1. Ekoizpen-prozesuaren deskribapen orokorra –halakorik bada- (norberak ekoiztu, erosi ala nola egin behar den azaldu).
2. Helburu eta estrategien definizioa.
3. Jarduera gauzatzeko behar diren aktibo finkoen eta azpiegituraren deskribapena.

- **Giza-baliabideen eta antolaketa-plangintzaren definizioa:**

1. Enpresaren giza-baliabide politika orokorraren deskribapena.
2. Hasieran izango den langile-zerrendaren deskribapena.

- **Teknologi plangintzaren definizioa (halakorik badago):**

1. Enpresaren helburu eta estrategia teknologikoen deskribapena (azaldu enpresak, bere teknologiarik dagokionean, garatzen jarraitu nahi duen ala ez, eta nola bideratuko duen garapen hori: berak gauzatuko duen, erosiko ote duen, teknologi zentroekin elkarlanean arituko den eta abar...).
2. Teknologia plataforma: hardware-a, software-a eta abar (azaldu hardware edo software konkreturik erabiltzen den, berori librea edo lizentziaduna den eta abar).

- **Ekonomia- eta finantza-plangintzaren definizioa**

1. Inbertsioen plangintza.

2. Finantza-aurreikuspenak (diru-sarrera eta gastuen bolumena, egoeraren balantzea, diruzaintzako aurrekontua).
3. Ekonomia- eta finantza-azterketa (VAN, TIR, maniobra-fondoa, errentagarritasuna eta abar).
4. Finantza-estrategia.
5. Finantza-baliabide erabilgarriak.

4 PROIEKTUAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- Dokumentu horiek guztiak aurkezteko azken eguna 2012ko apirilaren 4an izango da.
- Ingurumenaren aldeko politikarekin bat eginez, proposamenak posta elektronikoz bakar-bakarrik aurkeztu ahal izango dira honako helbidean: abiapuntu@udalermua.net.
- Bidaltzen diren proposamenak ondorengo erreferentzia izango dute idatzita: **“JUAN TORRES” Enpresa-proiektua Berritzaileen 7. Lehiaketa.**
- Behar bezala ez aurkezteagatik proposamena zuzendu behar bada, beste bost eguneko epea emango da gehienez horretarako.
- Birusen bat daukaten proiektuak automatikoki baztertuak izango dira hautapen-prozesutik.

5 BETEKIZUNAK

- a) Deialdi honetan parte hartzeko, lehiaketan saritutako enpresa-ekimena Ermuan gauzatu beharko da. Horretarako Izarra enpresa-gunean instalatuko da enpresa, negozioak behar bezala funtzionatzeko beste leku batean kokatzea komenigarriago ez bada behintzat. Hala balitz, justifikatu egin beharko litzake.
- b) Proiektuak jendaurrean aurkeztuko dira Toki Garapeneko Astea 2012 jardunaldietan, 5 minutu gehienez izanik horretarako. Jendaurreko aurkezpen hori egiteko eguna aldeztu aurretik, behar beste denboraz jakinaraziko zaie suspertzaileei. Aurkezpen hori kontutan hartuko da proiektuak eta suspertzaileen gaitasunak baloratzeko orduan.
- c) Proiektuak originalak, argitaragabeak, euskaraz zein gaztelaniaz idatziak izango dira, eta beste lehiaketa batzuetan ere saritutakoak izan daitezke, baldin eta suspertzaileek Ermuan gauzatzeko asmoa badute.
- d) Modalitate honetako saria eskuratzeko, **enpresa martxan egon beharko da saria eman eta bi hilabeteko epean**. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta eman izanaren agiria

aurkeztuko da hori frogatzeko. Suspertzaileak enpresa martxan jartzeko epe hori bete ezin badu, Udalari zergatia azaldu eta frogatu ondoren, epea beste bi hilabetez luzatzea eska dezake.

- e) Lehenago eratutako enpresa batek ere aurkeztu dezake bere proiektua, beti ere bere jarduerari 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen ekin ez badio (Ekonomi Jardueren gaineko Zergako altaren dataren bidez frogatuko da hori).
- f) Saria jasotzen den unean enpresek Izarra enpresa-gunean izango dute jada beraien egoitza soziala eta fiskala, enpresaren beraren arrazoiengatik, eta beti ere ebaluazio batzordeak onartuta, beste leku bat hobe dela frogatu ezean.
- g) Lehiakideek "Juan Torres" lehiaketara aurkeztutako proiektuarentzat eskuratutako beste edozein laguntza edo diru-laguntza, edo beste lehiketaren baten irabazitako edozein sariren berri eman eta justifikatu beharko dio Udalari.

6 SARIAK

6.1 Lehenengo saria

- 6.000 €ko saria (**ikus BETEKIZUNAK atala**). Sari hori bi modutan entregatuko da:
 - a) Dirua bera, 6.2.1. puntuan adierazitakoaren arabera justifikatuko dena.
 - b) Ermuko Udala eta enpresa eratuberriarekin arteko zerbitzugintza kontratu bidez

Eta diruaz gain, ondorengoak:

- Lehenengo urtean Izarra enpresa-haztegia doan egotea.
- %60ko hobariak bigarren urtean enpresa-haztegia egoteagatiko prezio publikoan.
- %30eko hobariak hirugarren urtean enpresa-haztegia egoteagatiko prezio publikoan.
- Hobariok %10 gehituko dira proiektua emakume batek suspertua bada edo, suspertzailea talde bat izanik, gehienak emakumeak badira.

⇒ **Laguntzen zenbatekoa guztira:** 10.972 € (18 m²ko bulego baterako. Hobariak kasu guztietan aplikatuko dira, dena dela behar den espazioa).

Enpresa-haztegia sartzeak enpresen dinamizazio-programan parte hartzeko bidea zabaltzen du: prestakuntzarako bekak, ikastaroak, mintegiak, 100 Mb zuntz optikoa eta abar.

6.2 Bigarren saria

- 3.000 €ko saria (**ikus BETEKIZUNAK atala**). Suspertzaileak nahi izanez gero, Udalaren eta suspertzailearen arteko kontratu moduan eman ahal izango da zenbateko hori, beraz, bi aukera egongo dira saria eskuratzeko:
 - a) Dirua bera, 6.2.1. puntuan adierazitakoaren arabera justifikatuko dena.
 - b) Ermuko Udala eta enpresa eratuberriaren arteko zerbitzu-kontratu bidez.

Eta diruaz gain, ondorengoak:

- Lehenengo urtean Izarra enpresa-haztegia doan egotea.
- %60ko hobariak bigarren urtean enpresa-haztegia egoteagatiko prezio publikoan.
- %30eko hobariak hirugarren urtean enpresa-haztegia egoteagatiko prezio publikoan.
- Hobariok %10 gehituko dira proiektua emakume batek suspertzen badu edo, suspertzailea talde bat izanik, gehienak emakumeak badira.

⇒ **Laguntzen zenbatekoa guztira:** 7.972€ (18 m²ko bulego baterako. Hobariak kasu guztietan aplikatuko dira, dena dela behar den espazioa).

Enpresa-haztegia sartzeko enpresen-dinamizazio-programan parte hartzeko bidea zabaltzen du: prestakuntzarako bekak, ikastaroak, mintegiak, 100 Mb zuntz optikoa eta abar.

6.2.1 Sariak jasotzeko justifikazioak

- ⇒ Udalarekin zerbitzu-kontratu bat eginez saria kobratzearen helburua, suspertzaileari lehenengo esperientzia profesionala bermatzea da. Kontratua beste ekintzaile, irabazasmorik gabeko erakunde edo Udalaren beraren alde egingo da, baldin eta enpresa suspertzaileak proposatutako produktua edo zerbitzua bideragarria bada.
- ⇒ Sariak ordainketa bakarrean emango dira enpresa eratu eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta eman izana eta helbide soziala eta fiskala Izarra eraikinean edukitzea frogatzen denean, edo zerbitzu-kontratu bidez kobratu nahi izanez gero, zerbitzua ematen denean.
- ⇒ Lehenengo sariaren kasuan, onartu ezker, 12 hilabetez egon beharko da gutxienez Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda, eta bigarren sariaren kasuan 6

hilabetez. Kasu bakoitzean eskatzen den iraupen-denbora horrek ez dauka zerikusirik proiektuaren bideragarritasunaren aurreiritzi batekin, sariaren zenbatekoarekin baizik. Ekonomi Jardueren gaineko Zergako alta hiru hilabetero frogatuko da, berorren egiaztagiria aurkeztuz.

- ⇒ Enpresa eratzeko epea eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta ematekoa behar bezala justifikatu gabe iraganez gero, galdu egingo da kobratzeke dauden kopuruak jasotzeko eskubidea.

6.2.2 Sariak eta zergak

Banku-transferentzia bidez ordainduko da saria, eta zergarik badagokio, suspertzaileak hartuko du bere gain.

7 EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak ebaluatuko dituen batzordea Udaletxeko teknikariz osatua egongo da, eta proiektuen kalitatea eta oinarriekiko egokitzapena baloratuko du.

Ebaluazio Batzordeak hautapena egiteko erabiliko dituen irizpideak ondorengoak dira:

- Enpresa-plangintzaren bideragarritasuna, enpresa, teknologia eta ekonomia-finantza arloetan (25 puntu).
- Proiektuak suposatzen duen berrikuntza (20 puntu).
- Suspertzaileen inplikazio-maila eta kudeatzaileen esperientzia (20 puntu).
- Zuzenean zein zeharka lan kualifikatua sortzeko ahalmena (20 puntu).
- Ermua garatu eta dibertsifikatzeko ahalmena (10 puntu).
- Jendaurreko aurkezpena (10 puntu).

8 BETEBEHARRAK

- Lehiaketaren oinarriak guztiz onartzea.
- Jarduerari 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen ekin ez izana (Ekonomi Jardueren gaineko Zergako altaren arabera).
- Izarra enpresa-haztegian kokatzea enpresa, beste kokaleku bat hobea dela justifikatzen duen arrazoirik ez badago behintzat.

- Sariaren emakidatik aurrera bi hilabeteko apeak enpresa eratzea, ezintasuna justifikatzen duen arrazoirik ez badago.
- Ekonomi Jarduren gaineko Zergako altarako eskatutako epe osoan zehar, kasuan kasu, jardun beharko du enpresak bere eginkizunean, lehenago ixtea justifikatzen duen arrazoirik ez badago.
- Lehenengo hiru urteetan zehar Ermuko Udalaren saria hartu izana emango du jakitera enpresak bere komunikazio guztietan:
 - a. Ahozko komunikazioetan (irratian, orotariko elkarrizketetan eta abarretan) saria eskuratu izanaren berri emateko.
 - b. Idatzizko komunikazioetan (egunkari, aldizkari, posta elektronikoko eta abarretan), "Ermuko Udalaren "Juan Torres" lehiaketako 7. edizioan lehenengo/bigarren saria" aipamena eginez.

9 JABETZA INTELEKTUALA

Deialdi honetan parte hartzen duten guztiek, aurkeztutako proposamenen nahikoa jabetza eta legitimazio daukatela aitortuko dute, jabetza intelektualaren ezein eskubide edo, edukiei dagokienean, hirugarren batek Espainian zein atzerrian izan dezakeen beste edozein eskubide ez dutela urratzen adieraziz eta lehiaketaren antolatzaileak aipaturiko proiektua erabiltzearen ondorioz sor litekeen edozein erantzukizunetatik salbuetsiz. Nolanahi ere partaideek beraien gain eskusiboki hartzen dute proposamenetan jasotzen diren edukiak erabili, erreproduzitu, hedatu edo banatzearen ondorioz sor litezkeen kalte-galeren erantzukizuna

Proiektuak (edo horien jabetza intelektualak) suspertzaileenak izango dira eta antolatzaileak ez dira horiez jabetuko.

Halaber, sariak eman arte, antolatzaileek ez diote inori proiektuaren edukia jakitera emango, erakunde antolatzaile eta laguntzaileetatik aparte (ebaluazio batzordea, epaimahaia eta deialdia egiten duten erakundeetako teknikariak).

10 EBAZPENA

Ebazpenaren berri ematea eta sari-banaketa Toki Garapeneko Astea 2012 jardunaldien baitan egingo dira. Sarituak izan direnei aldeztu aurretik adieraziko die Udalak eman zaien sariaren berri. Epaimahaia deialdia egin duen erakundeko ordezkariak egongo da osatua.

Epaimahaikoek sariak eman gabe utz ditzakete behar beste proiektu aurkezten ez bada edo aurkeztutakoen kalitatea nahikoa ez bada. Sari bat eman gabe gelditzen bada, beste deialdi publiko bat egitea edo sari horren zenbatekoa beste kategoría bateko proiektuari ematea erabaki dezakete epaimahaikoek. Halaber, kalitatezkoak izan diren lanei ohorezko aipamena egin diezaieke, sarituak izan ez arren.

Epaimahaikoek honako lehiaketaren oinarriak interpretatu eta osatzeko ahalmena izango dute eta beraien erabakiak behin betikoak eta errekurritu ezinak izango dira. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta berauen ondorioz sortutako eskubideak eta betebeharrak onartzea dakar.

11 LABURPENA

“JUAN TORRES” PROIEKTU BERRITZAILEAK

Proposamenak , Zer aurkeztu : Teknologia izango da aurkeztutako enpresa-proiektuen osagai garrantzitsuenetakoa, eta negozioaren eginkizun nagusia ikerketa-lana.

Aurkezpena: 2012 apirilaren 4a

Proposamenak posta elektronikoz aurkeztuko dira ondoko helbidean: abiapuntu@udalermua.net.
www.ermua.es

Lehengoa saria	6.000 €:	
	⇒ Dirua bera, edo	
	⇒ Ermuko Udalarekin zerbitzugintza kontratu.	
	Enpresa haztegian baldintza hauekin:	Guztira: 11.000€
	⇒ 1. urtearen 100% hobaria	
	⇒ 2. urtean 60% hobaria	
	⇒ 3. urtean 30% hobaria	
Bigarren saria	3.000 € :	
	⇒ a) Dirua bera, edo	
	⇒ b) Ermuko Udalarekin zerbitzugintza kontratu.	
	Enpresa haztegian baldintza hauekin:	Guztira: 8.000€
	⇒ 1. urtearen 100% hobaria	
	⇒ 2. urtean 60% hobaria	
	⇒ 3. urtean 30% hobaria	